




CIE Automotive

CIE Automotive taldean jazarpen
egoeren prebentzio eta
tratamendurako protokoloa

Edukia

1. Sarrera	3
2. Helburua eta aplikazio eremua	3
3. Definizioak	3
4. Prebentzio neurriak	4
5. Jarduketa prozedurak	4

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	3 / 8

1. Sarrera

Jazarpen egoeren prebentzio eta tratamendurako protokolo hau ofizial egitearen xedea da izaera psikosozialeko patologien agerpena ekar dezaketen lan ingurune harreman pertsonalak antzeman, ebaluatu eta hauen inguruko irtenbideak proposatzea.

2. Helburua eta aplikazio eremua

Protokolo honen helburua da lan ingurunean jazarpena prebenitzea eta, jazarpena gertatuko balitz, arazoa tratatzeko eta etorkizunean errepika dadin saihesteko prozedura egokiak daudela bermatzea. Neurri honekin lortu nahi da jazarpenik gabeko lan ingurune bat, non pertsona guztiek euren lankideen duintasuna errespetatzen duten, alor profesionalean eta pertsonalean ere.

Protokolo honen aplikazio eremua CIE AUTOMOTIVE taldeko instalazio guztiak dira. Arlo honetako protokolo propioa duten instalazioek euren protokolo espezifikoak aplikatu ahalko dute, baina egiaztatu beharko dute protokolo hori koherentea dela protokolo korporatibo honetan ezarritako gutxieneko neurriekin eta prozedurekin.

3. Definizioak

a) Jazarpen morala (*mobbing*)

Jazarpen morala da lan ingurune batean, denbora jakin batean zehar, pertsona batekiko izandako edozein abusuzko jokabide edo indarkeria psikologiko. Jokabide edo indarkeria hori ikus daiteke pertsona baten izena zikintzeko, pertsona bati errespetua galtzeko edo pertsona bat isolatzeko helburua duten portaera, egintza, agindu edo hitzetan, pertsona horrek lana bere kabuz uzteko xedea dutenak eta pertsona horren duintasun eta osotasun psikikoan etengabeko kalte progresiboa eragiten dutenak.

Inguruabar astungarritzat jotzen da jazarpena egiten duen pertsonak nolabaiteko agintaritza hierarkikoa izatea enpresaren egituran ustezko biktimarekiko.


Jazarpen moralak hiru modutan ager daiteke:

- Goitik behera, jazarleak jazarpenaren ustezko biktimarekiko goitiko kargua duenean.
- Modu horizontalean, maila hierarkiko bereko pertsonen artean gertatzen denean. Kasu hauetan, jazarleak biktimaren lana oztopatzea bilatu ohi du, haren irudi profesionala kaltetzeko eta, zenbaitetan, besteen merituak meritu propio gisa agertzeko ere.
- Behetik gora, jazarleak ustezko biktimaren karguak baino maila hierarkiko txikiagoa duen lanpostu bat duenean.

b) Sexu jazarpena

Sexu jazarpena da izaera sexualeko edonolako hitzezko edo ez hitzezko jokaerak edo jokaera fisikoak gertatzen den egoera, betiere jokaera horien helburua edo ondorioa bada pertsona baten duintasunari erasotzea, bereziki larderiazko edo aurkako ingurune bat edo ingurune iraingarri, umiliagarri edo mingarri bat sortzen bada.

Egilea eta berrikusketa: Giza Baliabideen Arduradun Korporatiboa	Onarpena: Giza Baliabideen Zuzendari Korporatiboa	Data: 2020ko urria
---	--	---------------------------

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	4 / 8

c) **Sexuan oinarritutako jazarpena**

Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona baten sexuarekin lotura duen jokaera bat gertatzen den egoera, betiere jokaera horren helburua edo ondorioa bada pertsonaren duintasunari erasotzea eta larderiazko edo aurkako ingurune bat edo ingurune iraingarri, umiliagarri edo mingarri bat sortzea.

4. **Prebentzio neurriak**

Honako neurriak ezarri dira jazarpena prebenitzeko:

- Jokabide hauek ez onartzearen printzipioa errespetatzea, aplikagarria den lan arloko legerian aurreikusitako diziplinazko neurriak baliatuta, beharrezkoa balitz.
- Langile guztien baterako erantzukizunaren printzipioa ezartzea lan jokaeren gainbegiratzeari dagokionez.
- Komunikazio programak definitzea, erakundearen maila guztietan komunikazioa eta hurbiltasuna sustatzeko.

5. **Jarduketa prozedurak**

Jarraian azaldu den prozedura aktibatuko dela bermatzen dugu jazarpen salaketa bat aurkezten den kasu guztietan.

Jarduketa prozedura jarraian adierazitako printzipioen arabera arautuko da, momentu oro errespetatu beharko direnak:

- ✓ Tartean dauden pertsonen konfidentzialtasuna eta intimitatearen eta duintasunaren babesa bermatzea, edozein kasutan ere salaketa jarri duen pertsonaren nortasuna eta inguruabar pertsonalak babestuta.
- ✓ Lehenetasuna eta premiazko izapidetzea.
- ✓ Gertatutakoaren ikerketa xehatua eta, beharrezkoa balitz, profesional espezializatuek zuzendutakoa.
- ✓ Jarduketa bermea beharrezkoak diren neurriak aplikatuta, barne hartuta, kasuaren arabera, diziplinazko neurriak, frogatu egin diren jazarpen jokabideak izan dituen/dituzten pertsonaren/pertsonen aurka, eta baita fede txarrez leporatze edo salaketa faltsua egin duen pertsonaren aurka ere.
- ✓ Errepresalien aurreko ukigabetasuna, jazarpen egoera bat saihesteko eta prozedura hau abian jartzeko helburuarekin edonolako salaketa edo adierazpena egin duen pertsonak inolako tratu edo ondorio kaltegarririk sufrituko ez duela bermatuta (salaketa faltsu frogatuen kasuan har litezkeen diziplinazko neurriak kaltetu gabe).
- ✓ Ustezko biktimak, baldintza berdinetan, bere lanpostuan jarraitu ahal izatea bermatzea, hori bada bere nahia.


a) **Prozedura abiaraztea**

Prozedura abian jarriko da dagokion instalazioko giza baliabideetako departamentuaren bidez edo CIE AUTOMOTIVE taldeak duen kanal etikoaren bidez.

Beraz, jazarpen egoeraren jakinarazpena beti idatziz egin beharko da, bide hauetako bat baliatuta:

- Ustezko biktimaren edo egoera ezagutzen duen edozein pertsonaren aldetik:

Egilea eta berrikusketa: Giza Baliabideen Arduradun Korporatiboa	Onarpena: Giza Baliabideen Zuzendari Korporatiboa	Data: 2020ko urria
---	--	---------------------------

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	5 / 8

- Dagokion instalazioko giza baliabideetako departamentuari, departamentuak eskaintzen dituen harremanetarako bitartekoak baliatuta eta/edo protokolo honen I. Eranskinean ageri den inprimakia erabilita.
- CIE AUTOMOTIVE taldeak duen kanal etikoaren bitartez: <https://www.cieautomotive.com/canal-de-denuncias>

b) Instrukzioa

Espedientearen instrukzioa instalazioko giza baliabideetako departamentuko arduradunen erantzukizuna izango da, haiek badira hasierako jakinarazpena jasotzen dutenak.

Informazioa kanal etiko korporatiboan jasotzen bada, berriz, CIE AUTOMOTIVE taldeko Compliance departamentu korporatiboak instrukzioa abian jarriko du. Hala ere, departamentu honek instrukzio osoa edo zati bat eskuordetu ahalko du, ustezko jazarpen egoeratik hurbilago dauden langileak instrukzioa egiteko egokiagoak direla erabakitzen bada.

Instrukzioan parte hartzen duten pertsonak sekretu profesionala errespetatu beharko dute espedientea izapidetu bitartean ezagutzen dituen informazioen inguruan. Obligazio hori ez betetzeak zigorra ekarri ahalko du.

Ezohiko moduan eta kasuren batean ager litezkeen inguruabar bereziak kontuan hartuta, espedientearen instrukzioa prozeduraren instrukzio organoek izendatutako beste pertsona baten esku utzi ahalko da.

c) Aurretiko prozedura

Jazarpen egoera jakinaraztearekin batera, automatikoki jarriko da abian aurretiko prozedura bat, arazoa berehala konpontzeko helburua izango duena.

Prozeduraren fase honetan, espedientearen instrukzioa daraman pertsonak elkarrizketak izango ditu alderdi guztiekin, gertatutakoa argitu ahal izateko eta bi alderdiek onartzen duten irtenbide bat bilatzeko.

Behin abian egonda, eta prozedura honek lortuko ez balu jazarpen arazoa konpontzea hamabost egun naturaleko epe barruan, halaberharrez abiaraziko da prozedura formala.


d) Prozedura formala

Prozedura formala abian jarriko da instrukzioaren arduradunak informazio espediente bat irekitzen duenean.

Espediente hori prestatzeko, instrukzioan zehar, beharrezkotzat jotzen diren diligenza guztiak egin ahalko dira gertatutakoa argitzeko, betiere tartean dauden alderdiei entzunaldia ematearen izapidea mantenduta.

Ahalik eta lasterren eta, edozein kasutan ere, 30 egun naturaleko epe barruan, txosten bat idatzi beharko da honako alderdiak azaltzen dituena: salatutako egintzak, egoeraren inguruabarrak, jokabidearen errepikapena eta ustezko biktimaren lan obligazioen eta lan ingurunearen gainean izandako eragin maila.

Egilea eta berrikusketa: Giza Baliabideen Arduradun Korporatiboa	Onarpena: Giza Baliabideen Zuzendari Korporatiboa	Data: 2020ko urria
---	--	---------------------------

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	6 / 8

Edonola ere, bertan argi geratu beharko da instrukzioaren arduradunaren aburuz salatutako egintzak gertatu diren ala ez, eta egindako diligentziei esker modu objektiboan frogatu diren egintzak zeintzuk diren zehaztu beharko da.

e) Kautelazko neurriak

Espedientea izapidetu bitartean, instrukzioaren arduradunak hala proposatu badu, instalazioko Zuzendaritzak beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahalko ditu, jazarpen egoera berehala eteteko helburuarekin, baina neurri horiek ez dituzte inolaz ere kaltetuko tartean dauden pertsonen lan baldintzak.

f) Alderdien laguntza

Espedientea izapidetu bitartean, tartean dauden alderdiek euren konfiantzazko pertsona baten laguntza jaso ahalko dute eta pertsona horrek ezagutzen duen informazioaren gaineko sekretua gorde beharko du.

Konfiantzazko pertsona hau deklarazioak hartzeko momentuan eta instrukzioaren arduradunak tartean dauden pertsonen zuzendutako komunikazioetan egon ahalko da.

g) Espedientea ixtea


Espedientearen instrukzio organoak, frogatu diren egitateen larritasuna eta garrantzia kontuan hartuta, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartuko ditu eta, horrez gain, aplikagarria den Legean eta/edo hitzarmenean aurreikusitako zehapen neurriak ezarriko ditu.

Inolako jazarpenik egon ez dela erabakitzen bada eta, halaber, salaketa fede txarrez egin dela erabakitzen bada, dagozkion diziplinazko neurriak hartuko dira.

Edonola ere, espedientea kudeatzearen ardura duen departamentuak (bai instalazioko giza baliabideetako departamentuak, hasierako jakinarazpena jaso badu, edo departamentu korporatiboek kasua eskuordetu dioten pertsonak, halakorik balego) kasu guztietan bidaliko die amaierako informazio espedientea edo protokolo honen II. Eranskinean ageri den inprimakia Compliance departamentu korporatiboari (compliance@cieautomotive.com) eta giza baliabideetako departamentu korporatiboari (hr@cieautomotive.com), CIE AUTOMOTIVE talde osoan gertatutako jazarpen egoeren kontrola eraman dezaten.

II. Eranskinean aurki daiteke adierazitako departamentu korporatiboak jakinaren gainean jartzeko instalazioek erabil dezaketzen informazio inprimakia.

Egilea eta berrikusketa: Giza Baliabideen Arduradun Korporatiboa	Onarpena: Giza Baliabideen Zuzendari Korporatiboa	Data: 2020ko urria
---	--	---------------------------

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	7 / 8

I. ERANSKINA: Jazarpn egoera baten jakinarazpena

Eskatzailearen izen-abizenak:

Departamentua/saila:


Egoeraren azalpen laburra:

Eskatzailearen sinadura

Giza Baliabideetako Departamentuan jasoa

Data:

Egilea eta berrikusketa: Giza Baliabideen Arduradun Korporatiboa	Onarpena: Giza Baliabideen Zuzendari Korporatiboa	Data: 2020ko urria
---	--	---------------------------

	JAZARPEN EGOEREN PREBENTZIO ETA TRATAMENDURAKO PROTOKOLOA	Kodea:	
		Bertsioa:	1
		Orrialdea:	8 / 8

II. ERANSKINA: Jazarpen egoera baten inguruko informazioa

Instalazio produktiboa:

Departamentua/saila:

Egoeraren azalpen labur eta anonimoa, eta instrukzio organoak hartutako erabakia:

Data: